# ALKARTASUNAK ¿Zer egin dau Markiña ta inguruetan?

Koperatiba-alkartasunak auxe diño: ALKARTUTA ALEGINDU, DANEN ONERAKO.

Ori ezta barruan gordeteko bakarrik. Egiteko, baño. Ona emen alkartasun orrek, zer egin dituan Markiña ta inguruetan.

Lenengoko Koperatibea 1959 garren semendian sortu zan ta LA MARQUINESA izenaz asi zan, jangai ta etxe-jeneroa saltzen. Errentan artutako tokitxo baten sartu zan ta lenengoko urtean saldutako jeneroak 1.866.000, pta. balio izan zituan. Urte bira terreno bat erosi zan ta antxe eratu zan Markiñan lenengo izan za «autoservicio» izeneko dendea.

1.970 'ko urtean Eroski'gaz bat egin da. Bere dendan barrizketa aundi bat egin dau, ta gaur Markiña'ko dendarik onena da.

M. I. B. A. gerotxuago sortu zan, baserritarrak alkartu ta alkarri laguntzeko. Ori 1963 garren urtean izan zan. Eragozpen aundiak izan zituan asieran. Batetik almazena ipinteko lekurik ez ta bestetik borondate txarrak be bai. Baña ito bearrean, apurka indartu egin zan. Almazentxo bi errentan artu ta lenengoko urtean ia 4 millo ta erdiren jeneroa saldu eban. Andik urte betera, Beko-konbentuko partean almazen eder bat egin zan ta gaur bera beste jeneroz orniduta dagon almazenik, Markiñan eztago, ta bere pentzua be egiten dau.

Andik lasterrera, 1.964 urtean, CAJA LABORAL POPULARak bere opiziñia Markiñan ipiñi eban. Ori be Koperatiba bat da, diru-gauzetan beste Koperatibai laguntzeko ta batzen dan diruaz Koperatibai indarra emoteko.

1.970'ko urtean Ofiziña barrietara joan da. Ofiziña orreik ederrak dira eta sozio guztientzak toki egokian dagoz.

## KOPERATIBAK ZER EGIN DABE?

LA MARQUINESA koperatibeak bere sozioen artean amar urtean 1959'tik 1969'ra ia 100 milloen jeneroa salduta dauko. Gañera, retorno lez, 3 milloe zabaldu ditu ta OBRAS SOCIALES orretarako milloe bat.

Denda-etxea ta aurreratutako diru guztiak sozioen alegiñari eskerrak egin dira. Oneik gauzok inkustekoak dira, baña Koperatiba orrek beste alegin aundiak egin ditu, sozioen jakintza geitzeko, batzar, kursillo, itzaldi... ta olakoen bitartez. Ta Juntako-gizonak izan dienak zenbat alegin egin ta ardura artu izan dituen danen onerako!

M. I. B. A. Koperatibea, barriz, geroago ta obeto doia ta aurten 40 milloen jeneroa zabaldu dau ta 460 socio daukoz.

Lenengotan, urtean azkenean sozioak eukiten eben retorno izeneko diru mordotxoa. Baña orain, erretorno orren ordez, jeneroa merkiago emoten da, euren prezioa pagau danetik ozo gitxi geituaz. Orregaz beste iñun ezin leike denda edo almazen baten kastu ta jornalai erantzun. M. I. B. A.n orretxegaz kastu guztiai erantzuten jakue, bertan dabiltzanak eta Juntakoak fin-fin jokatzen dabelako ta koperatibako organisaziñoa ondo eratuta dagolako. Saltzen danen euneko 1,5 az aurrera doia MIBA.

Eta gañera, azko kastetan daben sozioen arteán, (100 milla pezetatik gora) banatu ditu igezko urtean ia 300.000 pta.

M. I. B. A. ezta bakarrik baserri-jeneroa zabaltzeko, baserritarren alkartasuna geitu ta baserria jasoteko baño.

M. I. B. A.k saltzen daben jeneroai ta bere jokabideai begiratuta, Bizkaiko Koperatiba nausienetarikoa bera dala, argi ikusten da. Orregaitik Madrilleraño bere entzutea eldu da ta Medailla ta Diploma bat emon deutsoe.

Berak lagunduta, «CENTRO DE GESTION» zortu da Esnekontrola eta ortuariak obetuago artzeko bideak egin dira.

Caja Laboral Popular

Ona emen beste koperatiba bat, diru-gauzetan beste koperatibai laguntzeko. Gañera beste bi gauza be egiten ditu: 1) Santander'tik ganaua ekartea, orrek daukazan araso guztiakin; orretarako baserritarria 19 milloa baño geia goaurreratu dautzez: 2) Geixo asegurua MIBA'ko sozioentzako. Orretan ia milloe 2 aurreratu dauz.

Kaja Laboral'ak, beste Bancoak egiten dabenen gañera, Europa'ko erreiturik aundiena emoten dautse bertan dirua daukenari. Markiñan aurten 325.000 pezetako sariak banandu ditu, eta batez be emondako berbea bete dau: Bertoko dirua bertorako erabilli. Orregaitik laster fabrika barria Altzan izango da.

Emendik aurrera lan-toki barriak sortzeko zer egingo dan, markiñarrak eurak gogor jokatuta erabagiko dabe.

Koperatiba onek alkarri laguntzen dautze. «Komité Interkoperatibo» sortu dabe, eta sozioekin Españatik eta Frantziatik ibillaldi batzuk egin dituez.

## ALKARTASUNAREN BIDEZ ZER BEAR LITZAKE?

Jakintza bideak danontzako izan daitezela, ez dirudunentzat bakarrik.

Alkartasunak daukazan onurak al dan jende geienentzako izan daitezela.

Markiñan ta Markiña-inguruetan aurreratzen dan dirua, bertan ogibide barriak sortzeko izan daitela.

Erri ta baserriak gora jasote au, danon arazoa iza dedilla, ez banaka batzuk aleginduta egiten dan gorakuntza.

# EL COOPERATIVISMO EN EL MARQUINESADO

El Cooperativismo es una doctrina basada en este gran principio: COLABORACION DE TODOS PARA BIEN DE TODOS.

¿Qué consecuencias ha tenido en la realidad el Cooperativismo en Marquina?

El año 1.959, Noviembre, nació la primera Cooperativa de Consumo con el nombre de LA MARQINESA. Alquiló unos modestos locales y el primer año vendió 1.866.000 Pts. A los 2 años, adquirió un solar y montó el primer autoservicio de Marquina.

En 1.970 se ha integrado en EROSKI -complejo de Cooperativas de Consumo- ha hecho una reforma grande en sus locales y posee hoy el mejor servicio de Marquina.

En 1.963 nace otra Cooperativa: M.I.B.A., Cooperativa Agrícola Comarcal: En su comienzo encontró grandes dificultades en parte debidas a la escasez de locales y en parte, proveniente de personas interesadas en que no naciera esa Cooperativa. Las dificultades fueron superadas. Comenzó su actuación en dos pequeños locales alquilados y vendió el primer año 4.400.000 Pts. de género. Al año siguiente construyó su almacén y actualmente además de ser el almacén mejor surtido de Marquina, fabrica parte del pienso que necesitan los socios.

En Junio de 1.964 se instaló en Marquina la CAJA LABORAL POPULAR, Cooperativa dedicada a recoger los ahorros dinerarios de la zona para invertirlos, cuando haya oportunidad para ello, en beneficio de la misma zona.

En 1.970 instala nuevas oficinas, -amplias y muy bien situadas para el servicio de los cooperativistas-.

## QUE HAN HECHO ESTAS COOPERATIVAS?

La Coop. de Consumo «la Marquinesa» ha vendido, exclusivamente entre sus socios, en 10 años -1.959/1.969- casi 100.000.000 y ha distribuido 3.000.000 como retorno, invirtiendo en Obras Sociales UN MILLON.

Los socios han constituido, además, un patrimonio formado por el edificio donde está instalada esta Cooperativa y el fondo de reserva. El edificio principal de 3 pisos y la sucursal son propiedad de la Cooperativa.

A estos resultados materiales hay que añadir la promoción personal de los socios con cursillos, conferencias, reuniones... y sobre todo, la que se adquiere al ejercer cargos directivos o tomar parte en actividades en las que se desarrolla el espíritu de iniciativa y el sentido de responsabilidad.

La Cooperativa Agrícola Comarcal M. I. B. A. va progresando cada año, distribuyendo este año 40.000.000 Pesetas en géneros entre sus socios. Son actualmente 460.

Aunque al principio se repartía retorno, ahora no lo hace. Ofrece en su lugar las mercancías al precio más barato posible, recargando muy poco los precios de origen. Este recargo normalmente es insuficiente para cubrir gastos generales de cualquier comercio. Si en M. I. B. A. es suficiente, se debe a que en ella, gracias a la buena organización y a la laboriosidad y austeridad de sus empleados y de la Junta Rectora, el porcentaje de gastos generales no llega al 1,50 % sobre la venta.

Junto al servicio de distribución de género, esta Cooperativa alienta entre sus socios todas las iniciativas de promoción.

Gracias en parte a su apoyo, ha nacido un CENTRO DE GESTION y van a comenzar en la Comarca los servicios de Control Lechero y Experiencias de Cultivos Hortícolas.

Su volumen de ventas y su organización han hecho de M. I. B. A. una de las Cooperativas mejores de Vizcaya. Este mérito le fué reconocido en Madrid con la concesión de una Medalla y Diploma.

Caja Laboral Popular, fundada para atender el aspecto financiero del movimiento cooperativista, está al servicio general de las otras dos cooperativas. En Marquina, tiene además, otros dos servicios: traida de ganado desde Santander, facilitando hasta ahora 19.054.635 Ptas.; seguros médicos para los socios y familiares de M. I. B. A., habiendo gastado en prestaciones la cantidad de 1.904.391 Ptas.

La Caja Laboral Popular, además de los servicios normales de Entidades de Crédito y Ahorro, dá a los marquineses el interés más alto de Europa; ha repartido en premios el año 1.970 la cantidad de 325.000,- Ptas. y ha cumplido su compromiso principal: INVERTIR DONDE RECIBE LOS AHORROS.

La Cooperativa Industrial va a tener pronto su gran pabellón en Altza y la creación de nuevos puestos de trabajo, tan necesarios en la zona, tiene ya cauce abierto. Dependerá del brío de los mismos marquineses la expansión industrial cooperativa de la Comarca.

Estas tres Cooperativas se apoyan mutuamente. Han constituido un COMITE INTERCOOPERATIVO que se ocupa principalmente de los aspectos sociales y han realizado ya viajes con los socios dentro de España y en Francia.

## CUALES SON LAS ASPIRACIONES DEL COOPERATIVISMO PARA EL MARQUINESADO?

Que todos tengan prácticamente oportunidad para adquirir formación profesional y cultural.

Que los servicios Cooperativos beneficien a la mayoría.

Que los ahorros de la Comarca se conviertan en puestos de trabajo en la misma zona.

Que todo esto, no se consiga por el esfuerzo de unos pocos, sino que en esta promoción colabore el mayor número posible de personas.

Marquina, Diciembre de 1.970

NEKAZARIEN BURUAUSTEAK

Kooperatibat ez dira gauzak merkeago erosteko edo garestiago saltzeko.

Kooperatibak izan bear dabe bakoitzak berekidekoakin norbere arazoetan ardutatzeko:esate baterako nekazariak eurak euren gauzetan zuzentralle ta arduradun izaterazteko:bakoitzak bakarti gitxi al dagike baña alkartasun-bidez asko.Alkartasun bide onetara jo bear dabe nekazariak.

Nekazariak euren arazoak ondo aztertzen baditue ikusiko dabe areriorik aundienak euren tartean dituela:nekazari bakartiak, alkartasun-arira jotzen ez dakienak:auzoetan biziarren auzotasun gabe jokatu oi dabenak.

NEKAZARIEN AURRERAKADAK

MIBA deritxon Kooperatiba Bizkaian ezaguna da:Markiña ta Inguruko Basarritarren Alkartasuna.Guztira 445 bazkio daukaz,ta egunean baño egunean geiago egiten dira zozio.Oraintsu egin dabe euren urteko batzarra ta guk batzar orretara joazenai bialdutako txartelean irakurri ditugu emen pozik besta askorentzat onurakor izan dagikezan barriok.ZORIONAK:AURRERA BETI.